ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 6a, ostirala • 128 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren Erabakia, 2026ko urriaren 9koa, zeinaren bidez onesten baita "Vitoria-Gasteizko udalerrian nekazaritzako produktu ekologikoa produzitu eta banatzeko sektorean enplegua sortzeko 2026ko laguntzak" programaren deialdiaren eta oinarrien justifikazio-epearen luzapena

I. 2026ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko udalerrian nekazaritzako produktu ekologikoa produzitu eta banatzeko sektorean enplegua sortzeko 2026ko laguntzen oinarriak eta deialdi publikoa onartu zituen (2026ko ekainaren 5eko ALHAO, 64. zenbakia). Laguntza horiek konkurrentzia sinplearen sistemaren bidez izapidetuko dira, Vitoria-Gasteizen nekazaritzako produktu ekologikoaren ekoizpen- eta banaketa-sektorean garapena bultzatzeko eta enplegua sortzeko.

II. Aipatutako deialdiak 75.000,00 euroko zuzkidura du guztira, 2026rako onartutako udal-aurrekontuko 0821.4314.47141 partidan ("Nekazaritza Ekologikoko Sektore Emergenteentzako Enplegu Plana") erabilgarri dagoen saldoaren kargura.

III. 2026ko urriaren 5ean, udalak txosten teknikoa egin zuen, eta bertan jasotzen denez —kontuan hartuta eskabideak aurkezteko epea 2026ko irailaren 15ean amaitu zela—, jasotako eskabide gehienak epe horren amaieran aurkeztu ziren eta ia osorik zuzendu behar dira. Ondorioz, beharrezkoa da deialdian ezarritako ordainketak justifikatzeko 2026eko urriaren 15eko epemuga luzatzea, oraindik ez delako eman laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena, aurreikusitako inbertsioen ordainketa aurkeztu ahal izateko.

IV. Beraz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109. artikuluaren ildotik, deialdiaren oinarriak aldatzea proposatzen da, honakoei dagokienez:

4. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak

4.2. Inbertsioak:

Honela dioen lekuan:

2026ko urriaren 15a baino lehen (egun hori barne) behar bezala justifikatuta dauden ordainketak bakarrik lagundu ahalko dira diruz.

Honela behar du:

2026ko azaroaren 30a baino lehen (egun hori barne) behar bezala justifikatuta dauden ordainketak bakarrik lagundu ahalko dira diruz.

19. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

Honela dioen lekuan:

Dokumentazio hori aurkezteko epea 2026ko urriaren 15ean amaituko da, egun hori barne.

Honela behar du:

Dokumentazio hori aurkezteko epea 2026ko azaroaren 30ean amaituko da, egun hori barne.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

V. Dirulaguntzei buruzko Legearen 32. artikuluari jarraikiz, laguntza-emailearen betebeharra da honako hau: "Vitoria-Gasteizko Udalak dirulaguntza behar bezala justifikatu dela egiaztatuko du, eta baita ere jarduera egin dela eta dirulaguntza ematea eragin zuen helburua bete dela". Gainera, udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 31.3. artikuluaren arabera, "dirulaguntzak justifikatzeko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, jarduera egiteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita, salbu eta deialdiak edo hitzarmenak beste epe bat ezartzen badu".

Bestalde, dirulaguntzei buruzko Lege orokorraren erregelamenduaren 70. artikuluan xedatutakoaren arabera, "dirulaguntza ematen duen organoak justifikaziorako ezarritako epea luzatu ahal izango du, oinarri arautzaileetan horren kontrako agindurik eman ezean, betiere, epearen erdiari dagokiona baino gehiago ez bada luzapena, eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie".

Kasu honetan, oinarriek 2026ko urriaren 15a ezartzen dute justifikazioa aurkezteko epemuga gisa. Komenigarritzat jotzen da epe hori 2026ko azaroaren 30era arte luzatzea, entitate onuradunei justifikazio-dokumentazioa behar bezala prestatzen eta aurkezten laguntzeko eta, aldi berean, organo emaileak emandako dirulaguntzen baldintzak eta helburua betetzen direla behar bezala egiaztatzen duela bermatzeko.

Proposatutako luzapena hasieran ezarritako epea amaitu baino lehen adostu da, eta, beraz, epea ez da epez kanpo luzatzen, eta ez du eraginik irmoak diren egoera juridikoetan. Era berean, aldaketak ez die kalterik egiten hirugarrenen eskubideei; izan ere, epemuga berriak entitate onuradunen justifikazio-betebeharrari baino ez dio eragiten, eta ez ditu aldatzen emandako dirulaguntzen betekizunak, emateko irizpideak, zenbatekoak eta funtsezko baldintzak.

Bestalde, epea 2026ko urriaren 15etik azaroaren 30era luzatzeak hilabete eta erdiko aldi gehitzea dakar, eta hori Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 31.3 artikuluan aurreikusitako gehieneko mugaren barruan dago, epearen horren erdia gainditzen ez duelako.

Ondorioz, justifikazioa aurkezteko epea luzatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direnez, 2026ko azaroaren 30a izango da epemuga berria (egun hori barne).

Tokiko Gobernu Batzarrak du dirulaguntzak emateko eskumena, haren egitekoa baita ekonomi kudeaketa eta, beraz, Dirulaguntzen Estrategi Plana bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 127.1.g) eta 2. artikuluetan eta dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 8.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Azaldutakoa kontuan hartuz, onesteko eskatzen diren legezko betekizunak betetzen direla egiaztaturik, eta eskumenak eskuordetzeari buruzko 2025eko maiatzaren 16ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehena. Vitoria-Gasteizko udalerrian nekazaritzako produktu ekologikoa produzitu eta banatzeko sektorean enplegua sortzeko 2026ko laguntzen oinarriak aldatzea, honakoei dagokienez:

4. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak

4.2. Inbertsioak:

Honela dioen lekuan:

2026ko urriaren 15a baino lehen (egun hori barne) behar bezala justifikatuta dauden ordainketak bakarrik lagundu ahalko dira diruz.

Honela behar du:

2026ko azaroaren 30a baino lehen (egun hori barne) behar bezala justifikatuta dauden ordainketak bakarrik lagundu ahalko dira diruz.

19. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

Honela dioen lekuan:

Dokumentazio hori aurkezteko epea 2026ko urriaren 15ean amaituko da, egun hori barne.

Honela behar du:

Dokumentazio hori aurkezteko epea 2026ko azaroaren 30ean amaituko da, egun hori barne.

Bigarrena. Oinarriak aldatzeari buruzko erabaki honetan xedatutakoa udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea,

Hirugarrena. Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa espresuki edo presuntzioz ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko urriaren 9an

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
MARÍA NANCLARES CABALLERO

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.06 06:37:33 Z